

“San Mames, beti eta betiko”

Badugu gerorik

Neu ere joan den mendean jaio nintzen, San Mames Zaharra bezala, baina hamarkada batzuk geroago; arku eta guzti ba omen zeukan ordurako. Eta futbol-zelaia eta arkua, biak izan dira haurtzaroan ezagutu nindutenetik neure gizontzearen lekuko. Oraindik ere sarri ikusten naute, kanpotik eta barrutik.

Ez nintzen, txikitan amestu legez, futbolari izatera iritsi. Ametsak amets. Tira, egia esan, Athleticeko jokalaria izatea zen nire benetako ametsa. Ez nintzen, hortaz, miresten nuen Rojo lehenaren antzera San Mameseko zelaia zapaltzera heldu. Bestelako garaiak ziren ordukoak; ez dakit hobeak ala ez, baina bestelakoak. Esate baterako, ez zegoen maiz aldatzen zen kamiseta ofizialik edo bigarren edo hirugarrenik, baina hura zen hura zurigorri bat oparitzen zizuten egunaren poza, poz zabalagoa benetan, egun horretakoa eta aurrerantzean jazten zenuen bakoitzekoa.

Baina dena ere ez nuen horren koloretsu eta hurbil sumatzen goi mailako futboleantzearen--bestelakoa zen laurogeita hamar minutu izan balitu bezala jokatzeko genituen jolastokiko norgehiagokak--. Gustukoa nuen hura, bai, nahiz eta telebistaz inoiz partidaren bat ikustekotan irudia zuri-beltza izan, zuri-beltzean egon prentsan irakurtzen nituen berriak. Zuria eta beltza Hoja del lunes-en astelehenetan; berau baitzen egun horietan argitaratzen zena. Zuria eta beltza gainontzeko lanegunetan; auzokoengana joateko ohitura nuen urte haietan, etxean erositako El Correo-n zetozen albisteak La Gaceta del Norte-koekin osatzeko, --Mugikaren Sputnik haiek irakurrita, besteak beste--. Irudimenaren koloreez margotzen nuen guztia, oster, haur bati dagokion moduan, iratiaren ahotsak eta hotsak lagun nituelarik.

Eta hazte-prozesuan, sozializazioaren urratsetako bat bailitzan, San Mamesera eraman ninduten lehen eguna ezin ahaztu. Alai bezain arteta, amak behar bezala apaindu eta aitaren eskutik zintzo-zintzo. Agin isildu ezinik Atxuritik San Mameserainoko bidean, trolebusean edo, zer bizi izango asmatu nahian. Eta sartuaz batera zentzumen guztiak dantzan jarri zireneko unea gogoan oraindik orain: zelaiaren kolorea --zeinen berdea zen-- eta belar-usaina, fokoen distira, zaleen oihiak... Ez zeukan zerikusirik, ez telebistako zuri-beltz gezarekin, ez kromoetako irudi geldi eta isilekin, ez San Mamesetik inoiz ekartzen zidaten aldizkaritxoarekin. Handik aurrera, gero eta sarriago Katedralera, egun batean aitaren lekua eta lekukoa hartu arte. Preferentzia Nagusian, zelai erdian. 27 urte luzez, bizitza erdia baino gehiago bertan.

Bitartean, sozializazio horretan, neuri ere lekukoa ematen hasteko garaia iritsi zitzaidan eta seme-alabak lehenengo aldiz San Mamesera eramatekoa; areago oraindik gerora emazte bilakatu zen neskalaguna zalea eta bazkidea izanda --nire begiak berarengan jartzeko lehendabiziko arrazoia izan ez arren--. Ez dut gogoan, berriz, nolakoa izango zen euren lehendabiziko egun edo iluntze hori. Hala ere, txikitatik, adi bezain geldi eta berritsu zure ondoan harmailetan egon den semea, dagoeneko hazi eta zu baino handiagoa dena --meritu handirik ere ez da behar horretarako-- zutik eta bufanda zurigorria aidean zuela aldamenean Aidaren martxa gogo biziz kantatzen ikusi zenuen aurreneko aldia ezin gogotik kendu. Edota ezin ahaztu, urteen buruan, zoriontasun malkoren bat irristatzen hasi zitzaidan partidu gogoangarri batean, alabak belarrira hurbildu eta “ulertu dut zer den San Mames, aita” esan zidanekoa.

Beharbada futboleak ez naiz horren sutsua honezkero; sentimenduak eta oroitzapenak gailenduz doazela sumatzen dut, ordea. Eta, horregatik akaso, garra zuri-gorria hurrengo belaunaldira iragan dela konturatu naiz; geure aitarengandik jasotakoak baduela gerorik. San Mames zaharrean oraindik baina San Mames Barrirako bidean badagoela gerorik, badugula gerorik.